

GAL auzia  berriz ikerbidean

Gobernuak ez duela erantzukizunik berretsi du Felipe Gonzalezek

Ez du dimisioa aurkeztuko ezta hauteskundeak aurreratuko ere

Felipe Gonzalezek ez du Espainiako Gobernuaren erantzukizun politikorik ikusten GALen auzian, eta hortaz ez du dimisioa aurkeztuko ezta hauteskundeak aurreratuko ere, atzo prentsaurrekoan azaldu zuenez. Gonzalezek ez zituen oposizioko alderdiak gustora utzi, CiU izan ezik.

MADRIL

Azken orduetan Madrilgo inguru politikoetan zabaldu eta zurrumurrua konfirmatu zen eta Felipe Gonzalez Espainiako Gobernuaren presidentea prentsaurrekoan azaldu zen atzo aurtengo azken Ministro Kontseiluaren ondoren. Agerraldia urteko balantzea egiteko deituta bazegoen ere, GALen auziari buruz Gonzalezek egin zitzakeen adierazpenek bereganatu zuten arreta.

Joan den astean esandakoaren ildotik, Gonzalezek ukatu egin zuen GALen auzian Gobernuak erantzukizun politikorik duela, eta beraz baztertu egin zuen dimisioa aurkeztuko aukera baita hauteskundeak aurreratzea ere. Bere iritziz, Gobernuaren egonkortasuna bermatuta dago CiUren laguntzarekin, eta prozesu judizialak ez du bere jardunean eragin izango.

Gonzalezek uko egin zion Baltasar Garzon, Barne Ministerioko Drogaren aurkako Planaren arduraduna izan ondoren, auzi honetan egiten ari den lana baloratzeari, prozesu judizialean esku hartzeko asmorik ez duela argudiatuz. «Astakeria izango litzateke (Garzonen) egokitasunaz jarrera hartzea» esan zuen.

Aldiz, inplikaturiko poliziburu ohien errugabetasun presuntzioa bermatzeko ahalegin bat egin behar dela azpimarratu zuen Gonzalezek. Pertsona hauek, bere ustez, «asko egin dute borroka antiterroristan, egungo esparru legalaren barruan», eta Estatuko segurtasun indarrek gainera «susmotik kanpo» egon behar dute.

Isiltasunaren truke Amedok eta Dominguezek Barne Ministerioari egin zioten 600 milioi pezetako (24 milioi libera inguru) eskaera ezagutzen ez zuela esan zuen Gobernuaren presidentek. Halaber, Ministro Kontseiluak bere garaian atzera bota zuen bi polizia ohien indultu eskaerak tramite «normala» izan



Urteko azken Ministro Kontseiluaren ondoren agertu zen Felipe Gonzalez.

EFE

zuela eta Gobernuak kontrako jarrera «bateratua» izan zuela azaldu zuen.

Belloch ministroak gaur Kongresuko batzordean emango dituen azalpenak «urriak» izango direla aurreratu zuen Gonzalezek, prozesu judizialari buruz «oso informazio gutxi» dutelako.

Gonzalez kexu agertu zen, «urduritasuna» eta «epaiketa paralelo gehiegi» antzeman baitu egungo giro politikoan.

OPOSIZIOKO ALDERDIEN EZADOSTASUNA

Gonzalezek azalpenak ez zituen oposizioko alderdietako inor komentatu, CiU izan ezik. PPren iritziz, Gonzalezek «errealitate kanpo bizi da» hauteskundeak aurreratzeko aukera baztertzeko gaitik. Gonzalezek «krisitik ateratzea eragotzen» duela azaldu zuen PPK, ez baito lasaitasunik ekarri ez gizarteari ezta finantza merkatuei ere. Halaber, Gonzalezek ez dela inor Gobernuaren

erantzukizuna ukatzeko esan zuen Aznarrek.

Iñaki Anasagasti EAJko bozeramaileak «balore demokratikoen defentsa tinkoagoa» espero zuen Gonzalezengandik, GALen sorrera nolabait justifikatuz zenbait kargu politiko eta polizialek egin dituzten adierazpenak direla eta.

Miquel Roca CiUkoak berriz, Gonzalezek agerraldia goraiatu zuen, «aurpegia eman du eta lasaitasuna ekarri du».

Belloch gaur agertuko da

MADRIL

■ Juan Alberto Belloch Espainiako Justizia eta Barne ministroa gaur agertuko da Kongresuan 'GAL auziari' buruzko azalpenak emateko.

Sozialistek halakorik nahi ez bazuten ere, CiUren presioak jarreraz aldatzera behartu ditu. Horrela, Kongresuko Justizia eta Barne batzordeak aho batez onartu zuen atzo PPK eta IUk eskatutako agerraldia. Aipatu batzordean talde sozialistaren bozeramaile gisa aritzeari uko egin zion Ventura Perez Mariño PSOEko diputatu independenteak, bere taldearen irizpideekin ados ez zegoela argudiatuta.

Perez Mariñoren ordez Carmen del Campo mintzatu zen talde sozialistaren izenean. Bellochen azalpenek ezer gutxirako balioko dutela uste arren, sozialistek «egia» jakin nahi dutenez haren agerraldia ez zutela eragotziko adierazi zuen Carmen del Campok. Honen arabera, «talde sozialista da egia jakiteko interes handiena duen taldea, ez bakarrik gertaeren larritasunagatik, baizik eta erasoak jasan dituzten zenbait taldekide babesik gabe daudelako».

Federico Trillo PPko ordezkariak ezinbestekotzat jo zuen Bellochen agerraldia, «azken egunotan kaleratu diren informazioen arabera, Gobernuak eta Barne Ministerioak talde krimi-

nal bat antolatu eta finantzatu dutelako».

Antzera mintzatu zen Antonio Romero. IUko bozeramaileak 'GAL auzia' argitu beharrekoa dela esan zuen, 'gera zikina' babesten duen Estatua «kriminal» bihurtzen delakoan.

Bellochen agerraldia auzia argitzeke ez duela balioko, baina CiUk Gobernuarekiko konfiantza berretsi ahal izateko derrigorrezkoa zela adierazi zuen alderdi horretako ordezkariak.

Emilio Olabarria jeltzaleak 'GAL auzia' oso larria dela azpimarratu zuen eta, aldi berean, «estatu terrorismoaren aldeko kanpaina» demokraziarentzat zeharo arriskutsua dela ohartarazi zuen.

Poliziburu ohiek kartzelan segi dezaten agindu du Garzon epaileak

MADRIL

Julian San Cristobal Estatuko Segurtasunerako zuzendari ohiak, Francisco Alvarez Informazio eta Ekintza Bereziatiko Kabineteko buru ohiak eta Miguel Planchuelo Bilboko Poliziako buru ohiak espetxean jarrai dezaten agindu du Baltasar Garzon epaileak, defentsako abokatuak aurkeztutako errekursoak atzera botata.

Atzera bota ditu Julio Hierro eta Francisco Saiz Ocejak aurkeztutako errekursoak. Polizia horiek behin-behineko askatasunean daude 10 milioi pezetako fidantza ordainduta. Bere auziaren epaileak dioenez, ez dago inolako datu berririk bost inkulpatuen egoera judiziala aldatzeko.

Entzutegi Nazionalako iturriek azaldu zuten, Garzonek ez du printzipioz Jose Barrionuevo Barne ministro ohiaren deklaraziora deitzeko asmorik. Barrionuevok herenegun jakinarazi zuen idazki bat bidali diola Baltasar Garzoni, bere aurrean deklaratzeko nahia azalduz.

KAS: «GAL sortu zuen estrategiak bere horretan segitzen du»

IRUNEA

Espainiako Estatua GAL sortu eta tresna politiko militar gisa erabiltzera eraman zuen estrategiak gaur egun bere horretan jarraitzen duela salatu zuen atzo Koordinakunde Abertzale Sozialistak (KAS) prentsa ohar baten bidez.

KASen irudikoz, «inpunitate osoz jokatzeko duten aparato polizialen autonomia, Goardia Zibilarekiko eta Armadarekiko morrontza eta torturaren erabilera sistematikoa» dira Espainiako eta Frantziako gobernuak egin duten apustu politikoaren gakoak. Horren atzean Euskal Herriaren eskubide demokratikoen ukazioa dagoelakoan, KASek gure herriaren eskubideen alde borrokatzeko premia azpimarratu du. Horri lotuta, Amnistiaren Aldeko Batzordeak biharko antolatuko manifestaldian parte hartzeko dei egin du, Espainiako Estatuarekiko «morrontza» salatuzko modu bat delakoan.